

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMAI

Eskola

4 zbk.

2005eko martxoaren 6a



Urte batzuk atzera eginez, *Lumaneko* kideak ere, ikasle izan ziren garai batean. Amasar eta villabonatar gazteek mojetan nahiz eskola publikoan ikasi zuten idazten eta irakurtzen, besteak beste. Orduko eskola, inondik inora, ezin pareka daiteke egungoarekin. Hizlariak aipatu dituzten hamaika gertaera ezin sinetsita gera-

tuko da, agian, bat edo beste. Esanak, ordea, egiazkoak dira eta gure lagunek, barre artean batzuetan, aurpegi serioagoekin hurrena, barru-barrutik azaldu dituzte, gainera. Barregurea sortuko dute aipamen batzuek, harridura beste batzuek eta hunkidura ere, seguruenik ez da urruti ibiliko, kasu batzuetan. Gatozen, bada, garai hartako eskolen berri ezagutzera.

ZENBAT ZIREN, NON ZEUDEN

Lumaneko kideak ume ziren garaian, eskola bat baino gehiago zegoen Amasan eta Villabonan. Lehen eskola, Amasako Hijas de la Cruz mojena izan zen. 1904 urtean, Santa Kruz ermitaren ondoan, Eguzki-alde etxeari erantsitako eraikinean kokatu ziren mojak, eta bertan, haur eta gazte amasarreri nahiz villabonatarrei ematen zizkieten eskolak. Don Jose Maria Arretxe apaizarena zen aipatu etxea eta eskola izateko utzi zion herriari. Sor Monica eta sor Lorenza izan ziren eskolako lehen maistrak. Sor Monica euskalduna zen, Oiarzungoa, eta hark, ume txikiak zaindu eta dotrina ematen zien. Gaztetxoagoen eskola sor Lorenzarekin izaten zen. Denak batera ibiltzen ziren, neska eta mutil. "Txikitari denak batera ibiltzen ginen, pixka bat hazitakoan, mutilak Joakin organistanekoarengana pasatzen ziren. Hark ematen zien eskola mutilei eta neskek, mojekin jarraitzen genuen" gogoratu dute. Joakinek Andrategi etxean ematen zizkien eskolak mutilei eta eskolaz gain, hantxe bertan, solfeo ere erakusten zien. Mutilak eskolatik ateratzen zirenean, gau-
eskola izaten zuten, soldadu joan aurretik. Joakin Etxeberriak ematen zituen eskola haiek ere. Asko ikasten zuten han, ondo idazten, esaterako. Eskola publikoa geroago egin zuten Amasako plazan. Seroetxe baserriaren atzealdean altxatu zuten, orain, kultura etxea eraikitzen ari diren inguruan. Santiago Gascón izan zen bertako maisua eta ikasleak, batik bat amasarrak ziren. Amasarrak eta mutilak. Amasan eskola publikoak eraikitzean, Villabonara etorri ziren mojak eta moja ez ziren maistrek bete zuten haien papera. Villabonan lehen-lehenik, Kale Berriko Saizar etxea izan zen mojen eskolaren kokalekua. Elizaren eta Otsabi



Mojen etxea Villabonan. Goran, Amasako eliza.



Villabonako eskola publikoa udaletxean. Ikasleak kanpoan ageri dira.

auzoaren artean altxa zuten eraikina geroago. Ikasgelak, patioa eta ospakizunak egiteko kapilla zituen. Gaur ez da etxe eder haren aztarnarik geratzen, N-1 errepidea egiteko bota egin baitzuten. Eskola publi-

koak edo nazionalak udaletxean zeuden. Bi solairu zituen; behean mutilak biltzen ziren eta emakumeak goran. Urte dezentegeroago, Zentroa eraiki zenean, mutilentzako akademia jarri zuten bertan.

ESKOLAK MAILAKATUTA

Garai hartako eskolak hiru maila zituen; "parguloa", lehen maila eta bigarrena. Adinka bereizten ziren taldeak: txikiak batetik, erdikoak bestetik eta zaharrenak azkenik. Txiki txikitik, neska eta mutil, guztiak talde berean biltzen ziren "parguloa" egiteko. Eskolako hastapenak, mojetan egin zituzten amasar eta villabonatar neska-mutil ia guztiek. Lehen jaunartzea egin eta gero, neska askok, mojetan jarraitzen zuten, besteak eskola publikora joaten ziren. Mutilak, sei urte betetzean, mojetatik kanpora abiatzen ziren denak, nazionalerara. Mojen eskolak hiru maila zituen: "parguloa", 3/4 urtetik 6 urte bitarte, neskentzat eta mutilentzat; bigarren klasea, 6 urtetik 10 urte bitarte, neskentzat soilik eta; aurreneko maila, 10 urtetik 14 urte bitarte, neskentzat bakarrik hau ere. Plazako eskola nazionalerara hiru ikasgela zuden, bi gela mutilentzat eta neskentzat bakarra. Mutilek bi taldetan banatuta egiten zituzten ikasketak, 6 urtetik 10 urte bitartekoak biltzen ziren Juan Bautista Cuevasen gelan. 10 urtetik 14 urte bitartekoak, berriz, Luis Etxeberrenean. Neskak talde bakarrean biltzen ziren, Joakina Garaialde maistrarekin. Amasako eskolan sor Monicak, sor Lorenzak eta sor Piak eman zituzten lehenik eskolak. Ondoren, baita sor Catalinak ere. Mojak Villabonara eto-



Begoña Zurutuza, Koro Sagastume, Miren Maite Arregi, Maite Otegi eta Imanol Etxeberria Amasako eskolaren ate parean.

rri zirenean, sor Dolores izan zen lehenengo maistra. Geroago, sor Letizia eta sor María Frantziska. Sor Carmen San Jose izan zen Villabonako moja superiora. Hizlariak gogoratzen dutenez, "sor Letizia nafarrazen, oso jenio bizikoa. Bizkorra zen oso. Eskola partikularrak ere ematen zituen. Batzuek

"Sor Letizia nafarra zen, oso jenio bizikoa. Bizkorra zen oso. Eskola partikularrak ere ematen zituen. Batzuek ez zuten ikusi ere egin nahi izaten, masailekoren bat edo beste emanak baitzituen. Hala ere, asko zekiena zen eta erakusten ere bazekiena".

ez zuten ikusi ere egin nahi izaten, masailekoren bat edo beste emanak baitzituen. Hala ere, asko zekiena zen eta erakusten ere bazekiena". Amasako mojetan goizean 09:00etan sartzen ziren eskolara 12:00ak arte. Arratsaldetan, berriz, 13:30etatik 16:00ak arte. Ez zuten errekreorik izaten. "Eskolatik atera eta jolastera abiatzen ginen. Erretorea zain izaten genuen, ordea; `etxera, etxera, etxera. Zuen amak lanak izango ditu eta, etxera' esanez. Hura urruntzen zenean, plazara bueltatzen ginen gu. Horrela ibiltzen ginen". Villabonan, 09:00etatik 12:00ak arte eta 14:30etatik 16:30ak arte izaten zuten eskola. Ordu erdiko atsedendia izaten zuten goizetan. Ostegun arratsaldetan guztiek jai izaten zuten baina mojetan behintzat, larunbat goizetan eskolara joan behar izaten zuten.

LIBURU BAT, IKASGAI BERA

Denek liburu bera erabiltzen zuten eskolan, *La perla de la juventud*. Gai asko biltzen zuten: geografia, gramatika, aritmetika, urbanitatea eta kortesia... Bakoitzak bere pupitrean izaten zuten eskolak uzten ziren liburuak. Irakurgaiak lantzeko *La flora* izeneko beste liburu mardul bat izaten zuten. Txandaka, errezkan, ikasle bakoitzaren eskuetatik igarotzen zen liburu eta zatika irakurtzen zuten, gelako guztiek ondo entzuteko moduan. "Familia baten istoria kontatzen zen. Irudiak datozkit burura, ez zen baserri giroko kontaketa, familia dotorea zen hura" azaldu du Maritxuk. Gero, Bruñok idatzitako liburuak izan zituzten ikasgai. Gai bakoitzerako, liburuxka bat. Mailaz mailara etorrita, "kartilla" ikasten zuten lehendabizi: hizkiak (a, b, c...). Gero

"katona": silabak (ba, be, bi...). Hori eskolako lehen urteetan ikasten zuten. Tartean zenbakiak ere bai, "kantatzen aritzen ginen: `dos por uno es dos', `dos por dos son cuatro'... Egia esan, dena kantatzen ikasten genuen. Eta abesten hasten banaiz, ikasitako denak ateratzen zaizkit: zenbakiak, errezoak, lezioak..." esan eta frogatu egin du María Luisak. Aurrerago, bestelako gaiak ikasten zituzten; geografia, gramatika, aritmetika, urbanitatea eta kortesia... Azken gai hori egungo etikaren parekoa izan zitekeen: "persona helduekiko errespetua eta jarrera kontuak ikasten genituen. Askok gustatzen zitzaigun gai hura". Geografian, batez ere, Espainiako mapak ikasten zituzten, eta arbelean, askotan, mapari begiratu gabe, probintzia baten irudia marrazte-

ko eskatzen zieten. Nola edo hala moldatzen omen ziren. Ez zen ariketa erraza izango gero! Gramatika aditzak lantzen zituzten gehien. Matematikari aritmetika esaten zioten: gehitzen, kentzen, bidertzen eta zatitzen ikasteaz gain, problemak edo buruketak egiten zituzten, batik bat.



María Luisa Zalakain

"Dena kantatzen ikasten genuen. Eta abesten hasten banaiz, ikasitako denak ateratzen zaizkit"

ESKOLA

NOLAKOAK ZIREN IKASGELAK? ETA PUPITREAK?

Gelaren erdi-erdian, tableroa, pizarra edo arbel handi bat izaten zen. Kasu batzuetan, paretaren alde banatan, baita bi ere. Tablerora ateratzen ziren ikasleak irakasleak agindutako ariketak egitera. Koloretako mapak ere izaten zituzten, Espainiakoa nagusiki baina, baita Europa eta beste kontinenteetakoak ere. Arbelean zintzilikatu eta ikasleek, hiriburuen, mendien nahiz ibaien izenak ikasi behar izaten zituzten. Irakasleak nazio bakoitzaren hiriburuaz galdetutakoan, ikasleak erantzun egin behar izaten zuen. Irteera politik ere jasotzen zen tarteka, "Maisua galdeketa ari zela; bati '¿Brasil capital?' galdetu eta hark 'Rio de Janeiro' erantzun zion. Besteari '¿Perú capital?' galdetu eta 'Lima' erantzun zion; beste bati '¿Argentina capital?' galdetu eta 'Buenos Vientos' erantzun zion". Ez zebi-

len urruti ikaslea, bazekin zerbait! Maisu-maestren mahaia egurrezko oinarri baten gainean egoten zen, ikasleen mahaiaik baino zertxobait altuxeago eta mahaiaren gainean, munduko esfera bat izaten zen ikasgela askotan. Oro har, ikasleak binaka esertzen ziren pupitreetan; hala ere, baziren gehiago batera esertzeko moduko pupitreak ere, seikoak esaterako. Ikasturtean zehar, leku berean esertzen ziren ikasle gazteak. Kasu gehinetan, ikasle azkarrenak aurreko ilaratan esertzen ziren eta hain azkarrak ez zirenak, atzerago. Neguan hotza egiten zuenez, berogailu txiki bat pizten zuten. Egarrri zenarentzat, apal batean pertza bat izaten zen eta handik edaten zuten ura.

Pupitrearen tapa altxata, apal txiki bat izaten zuen mahaiaik. Bertan *La perla de la juventud* liburuaz gain, pizarra txiki bat, piza-



Mojak Villabonara etorri eta gero ere jarraitu zuen Amasan eskolak. Eskolako ikasgelan ikasleak eta maistra ageri dira. Tartean dira: Teresa Atxaga, Adela Mendizabal, Pilar Atxaga, Jesus Mari Sagastume, Begonia Zurutuza, Miren Maite Arregi, Mari Karmen Sagastume, Rosario Iraola, Maria Jose Etxeberria, Axun Ezeiza, Rosario Etxeberria, Lurdes Begiristain, Maria Luisa Goikoetxea maistra, Maria Elena Usandizaga, Milagros Begiristain eta Maria Jesus Altuna.



Pakita Lasa

"Astean behin betetzen ziguten tinteroa. Tinta hura eroriz gero, zigorra izaten genuen"

rrilloa, luma eta tinteroa gordetzen zituzten. Tinta maisu-maistrek egiten zuten, ura eta kolore urdinska zuen hautsak nahastuta. "Astean behin betetzen ziguten tinteroa. Tinta hura eroriz gero, zigorra izaten genuen" dio Pakitak. Txukun zaintzen saiatzen ziren, beraz. Hautsetan, etxean egositako betunaren tapekin edo txokolateak ekartzen zuen zilarrizko paperarekin estaltzen zituzten tinteroak. Gutxi batzuek zuten lapitza garai hartan eta borragoma zuena ere pozik, oso gutxi izaten baitzuten aukera hura. Gainerakoan, arkatzarekin idatzitakoak ezabatzeko, ogimamiarekin baliatzen ziren, mamia ondo gogortu eta gero. Txorroskilorik ez zen orduan, arkatzak zituztenek, afeitatzeko kutxillekin edo labanarekin ateratzen zioten punta. Koadernorik ez zen garaian, pizarra idazten zuten. Bakoitzak kuadro baten tamainako pizarra izaten zuen, egurrezko markoarekin. Pizarrilloarekin idazten zuten bertan, klarionaren antzeko osagaiarekin. Trapu bat edukitzen zuten pizarratik zintzilik, ezabatu beharrekoa ezabatzeko. Koadernoak geroago etorri ziren. Kaligrafia lantzeko erabiltzen zituzten batik bat, bi ilarako lerroak zituzten koaderno haiek; hala, hizkiaren tamaina neurtu ahal izaten zuten.

ESKOLAKO UNIFORMEA

Villabonako mojetan bi jantzi ezberdin zituzten, astean zeharerrako bat eta asteburuetarako beste bat. "Astean zehar eta baita asteburuan ere, soineko beltza jantzen genuen, fruntzeduna. Lepo eta gerriko gorria zuen astean zeharreko jantziak, asteburukoak, berriz, lepo txuri-txuria, almidoizatuta. Mezetara joateko erabil-

tzen genuen hura". Amasako mojetan ez zuten uniforme berezirik erabiltzen. Eta eskola publikoan ba ote zuten uniformerik? "Bai, gure uniforme petatxodun galtzak ziren" azaldu du Migelek gainerrakoen barre algaraz sortuz. Eskola publikoan ere, bakoitza bere erara jantzita joaten zen, beraz.



Migel Lertxundi

"Gure uniforme petatxodun galtzak ziren"

ESKOLAKO DISZIPLINA GOGORRA

Eskolakoa oso disziplina gogorra zela diote guztiek ahobatez. Zer esan... ondorengo adibideak ezagututa, ez dute inolako arrazoi faltarik. Ortografia akatsak eginez gero, egurra jasotzen zutela gogoan dute, luma behatz artean gaizki hartuz gero ere bai. Hitz egiten bazuten ere, kastigua izaten zuten: 'yo soy un/a hablador/a' idaztarazten zieten behin eta berriz. Zigorrak ez ziren, ez, nolana hikoak. Mojen eskolako ikasleek, kapilla garbitzea, erreztatzea edo belu-niko paretari begira jarritz, liburuak esku ahurretan eustea izaten zituzten zigor nagusiak. Mojen habitoa eta ikaslearen mantala katekorrazarekin lotu ondoren, askatzen zituzten arte, haren ondoan geldirik eta ixilik egotea ere ez zen kastigu makala. Eskolako orduetatik kanpo ere, gainean izaten zuten zigorraren itzala. Neskek, 14 urte



Maritxu Mendizabal

"Kastiguetako bat, eskailera azpian 'Aita gurea' frantsesez erreztatzea izaten zen. Ondo ikasi genuen, bai!"

bete arte, musika zegoenean, ezin izaten zuten plazatik igaro. Izugarritzko bueltak egiten zituzten, plaza zeharkatu gabe, etxera itzultzeko. Bestela bazekiten zein zen ordaina. Eta nola jakiten ote zuten mojek nor igarotzen zen plazatik? "Mojak ez ziren plazan begira egoten baina, jakiten zuten, bai. 'Pikoterek' esaten zieten nor gerturatu zen plazara". Eta itxuraz, 'pikoterek' zorrotz betetzen zuten euren lana. Amasako eta Villabonako eskolan lanean aritu ziren moja gehienak euskal-frantsesak ziren. Eskola orduz kanpo, eskola partikularrak ere ematen zituzten: frantsesa eta kontabilitatea erakusten zuten. Eskola partikularretara joateko beharrik gabe ikasi zuten frantsesez erreztatzen, moja eskolan ibilitako hainbat emakumek: "Mojek jartzen ziguten kastiguetako bat, eskailera azpian 'Aita gurea' frantsesez erreztatzea izaten zen. Ondo ikasi genuen, bai!". Oraindik ere gogoan du Maritxuk frantsesez errezoa. Eskola publikoan, berriz, makila izaten zen nagusi eta ondo gogoan dutenez, gogoz jotzen zuten gainera. Kastiguetako bat, ikaslearen burua irakaslearen hankartearen hartu eta buruan jotzea izaten zen. Eta ez eskuarekin bakarrik, egurrezko konpas handiarekin ere kolpatzen omen zuten egokitzen zenaren

burua, batere errukirik gabe. Hiru mutil batera hartu eta hirurak borobilean estutuz, batera kolpatzen zituzten, beste batzuetan. Azaldu dutenez, noiz edo noiz, bakkaren bat konorterik gabe ere geratu izan zen. Ez zen harriztekoa, eskolara beldurrez edo errespetuz gerturatzea, beraz. Kontuan hartu behar gainera, kasu askotan, eskolara ez joateagatik isuna ordaindu behar izaten zela. Anjelek pasarte alaia ekarri du gogorra, "Villabonako eskolako mutil taldea meza nagusi batera joan ginenean, Zizurkilgo taldearekin egin genuen topo. Atarian ginela, beeeee esanez agurtu genituen zizurkildarrak. Hurrengo egunean maisuak: 'esos que cantaban beeeee...'. Letrero batzuetan 'estos conejos cantan beeee' idatzi eta Zizurkilera joan ginen barkazio eske".



Anjel Egiño

"Letrero batzuetan 'estos conejos cantan beeee' idatzi eta Zizurkilera joan ginen barkazio eske"

AZTERKETARIK EZ, LANEN PUNTUAKETA

Eskolan egiten zituzten lanen arabera, puntuak ematen zituzten maisu-maistrek. Oro har, ez zen azterketarik izaten. Hori bai, ikasturtean zehar puntu gehien lortzen zuten ikasleek, oporraldiaren aurretik, eskurtsioa edo txangoa egiteko aukera izaten zuten, Villabonako eskola publikoan. "Puntuaketaren arabera joaten ginen eskurtsiora, ez denak. Ni bi txandatan joan nintzen. Gehienetan kostako buelta egiten zen; Andezarretatik abiatu eta Aiatik barrena Oriora; handik, berriz, Zarautzera autobusez. Beste behin, Ezkio-Itsasora joan ginen, Ama Birjina azaldu omen zela eta, hura ikustera" zehaztu du Jabierrek. Mojetan, berriz, denek egiten zuten irteera txikiren bat: Amasarrek, Belatera eta Irurara oinez egindako txangoa dute gogotan. Urtean behin, inspektorea etortzen zen eskola publikora eta galderak egiten ziz-



Villabonako ikasleek, Ama Birjina ikustera, Ezkio-Itsasora egin zuten irteera.



Jabier Berasaluze

"Puntuaketaren arabera joaten ginen eskurtsiora, ez denak. Ni bi txandatan joan nintzen"

kien ikasleei. Erantzuna asmatzen ez bazuten, inspektorea baino gehiago haserretzen omen zen maisua bera. "Inspektoreak ez zuen egurrik ematen, ez genuen besterik falta! Guretzat jai eguna izaten zen haren etorrera" aipatu du Pedrok. Mojetara inspektorerik ez; Amasara, Villabonako moja

superiora igotzen zitzairen eta Villabonara probintziala. Urtean ikasitako gaiet buruzko galdeketa egiten zuten haiek ere. Egun horiek iritsi aurretik, prestaketa lanetan aritzen ziren buru-belarri; gelak eta pupitre-ak txukun-txukun moldatzen... Behin edo behin, gizon heldu bat etortzen zen eskola publikora eta pelikula bat jartzen zien ikasleei, "teloia berak jartzen zuen eta mahai baten gainean jartzen zuen filmaren zinta pasatzeko makina. *Ran-ran-ran-ran* hotsa entzunez ikusten genuen pelikula". Eta eskolaz kanpoko ekintzarik izaten al zuten? Amasako nahiz Villabonako hainbat ikaslek antzerkia egin izan zuen baina, oro har, eskolan ez zen ekintza handirik antolatzen. Villabonako eskola publikoan, on Salvador apaizak kirol ekintzak



Pedro Arratibel

"Inspektoreak ez zuen egurrik ematen, ez genuen besterik falta! Guretzat jai eguna izaten zen haren etorrera"

antolatzen zituela oroitu du Migelek, "dotrinako garaian, kirol ezberdinen txapelketak antolatzen zituen. Irabazleek opariak ere izaten zituzten; luma estilografikoak. Irabazi ere egin nuen noizbait bakarren bat. Irteerak ere egiten genituen on Salvadorrekin".



Ikasleak jai egun batean, txistulari eta guzti.

EUSKARAZ GUTXI AURENA, BATERE EZ GERO

Gerra hasi aurretik, eskolan egiten zuten zertxobait euskaraz; gerra eta gero, ezta hitzik ere. Maisu-maistrekin erdaraz, lagunekin erdaraz eta noski, zituzten liburu gutxiak ere erdaraz idatzitakoak ziren. Gaztelaniaz ondo hitz egiten jakin ez eta, hizkuntza arrotza zela eta, hamaika pasa-

dizo dute hizlariak: Hauetako batek, Amasan odolkiak banatzen zebilela, eskolako mojarrekin egin zuen topo, '¿Qué haces en Amasa?' galdetu zion hark eta, 'A partir Amasa de olkis' erantzun zion honek. Eskolan, ikasgaiekin hasi aurretik, goizero-goizero, "Cara al sol" kantatu be-

har izaten zuten, Espainiako banderaren azpian jarrita. Franco Donostiara etortzen zenean, eskolatik errepidera ateratzen ziren, espainiar bandera txikiak eskuetan hartuta. Beste kasu batzuetan, gutxiagotan bazen ere, 'Por Diós, por la patria y el rey' kantua ere abesten zuten.

ERREZOAK, LABOREEKIN BATERA

Errezatu ere egiten zuten eskolan. "me cago en..." errezatzen genuen guk" aipatu du hizlarietako batek eta maldizio txikiak ere ondo kastigatuak izaten zirela adierazi dute. Errezatu, emakumeek beberen, arratsaldetan egiten zuten. Labore-

ak egiten zituzten bitartean, errosarioa esaten zuten. Izan ere, emakumeek josi edo brodatu egiten zuten arratsaldero. "Josten, brodatzen, zurtzitzen edo bainika egiten aritzen ginen, errosarioa esaten genuen bitartean. Lan politak egiten ge-

nituen, bai. Norberarentzat izaten ziren bakoitzak egindako lanak. Bukatutakoan, etxera eramaten genituen". Mutilek ez zuten arratsaldez eskola berezirik izaten, liburuarekin jarraitzen zuten, goizean bezalaxe.

EGUN BEREZIETAKO PASADIZOAK

Ostegun gizen egunean, mendira joaten ziren goizean zuhaitzak landatzera. Otsabiko zelaietan pinuak landatzen zituzten herriko gazteek. Arratsaldean aurraskua izaten zen plazan eta ondoren merienda, egungoaren berdin-berdina: txokolata, ogia eta laranja. Hala ere, orduko gazteak ez ziren mozorrotzen. Mojetan ez zuten askok aukera bera izaten, "ez genuen askotarik izaten baina, mojek mezetara eramaten gintuzten; inauterietan pekatu egiten ari zirengandik errezatzera. Bat edo beste, gurasoak joan zirelako-edo, Tolosara joaten bazen, kastigua izaten zuen". Ostegun gizen egun bateko pasadizoa ere jaso dugu Encarnaren ahotik: "Ostegun gizen. Aita gurea guarda zen. Pio aguazila eta lagunak batera zeuden... Dantza-soka atera behar eta Paquito Borbones dantza-soka ateratzen. Ni aurreneko neska eraman ninduten. Ni neska koxkorra, zortzi edo bederatzirentzat izango nituen. Nolabait pasa zen hura eta hurrengo egunean, Amasako neska guztiak Villabonako eskolara. Sor Maria Frantzis-



Encarna Yarza

"Superiora emakume handia zen, fuertea... Harek masailekoa eman izan baligu..."

ka jarri zen tente eta moja guztien aurrean nahiko barre egingo zuten haiek, e!_:`¿bueno, y ustedes ayer qué estuvieron haciendo?' (...) 'Ustedes a cantar *Andre Madalen*', neskei eta 'y ustedes a bailar' guri. Remigia Aiestaran eta ni ginen. Inork dantzarik egiten ez eta, 'empiecen ustedes a cantar y ustedes a bailar, sino les voy a dar una chuleta soberana'. Oraindik gogoan daukat nola esan zigun eta ez dut uste inoiz ahaztuko zaidanik. Ume gaixoak; dantzan, guk zer jakin behar genuen? Superiora emakume handia zen, fuertea... Harek masai-

lekoa eman izan baligu...". "Ni behin gogoratzen naiz superiorari aditua: ¡Qué pena me dan las chicas guapas, porque las guapas tienen mucho peligro en este mundo!" gogoratu du Maria Luisak.

Oporraldia uztailaren erdi aldean hartzen zuten, Santioetatik irailaren erdira arte. Eskola publikoan oparia izaten zuten ikasturte amaieran. "Udalak ordainduko zuen... Bakoitzari liburu bana oparitzen ziguten oporraldiaren aurretik. Liburu irakurterrazak izaten ziren, historia, biografiak, fabulak... biltzen zituzten".

San Nikolas egunean eta Eguberrietan, abesten ateratzen ziren etxer etxe eta baserri baserri lagun taldea. Eguberrietan, orduan ere, oporraldia izaten zuten.

San Juan bezperan, irteera egiten zuten Amasako eskolatik. "Mojekin behoko errekarra joaten ginen, 'La regata' esaten genion. Errekan oinak bustitzea izaten zen irteera, gero buelta eskolara. Poz-pozik". Villabonatik Otsabiko askara joaten ziren hankak bustitzera, pozik haiek ere.


ANAI-ARREBA UGARIKO ETXEAK, ESKOLA ONAK

Ume garaian, eskolan, ez zen asko ikasteko aukerarik izaten. Etxe bakoitzean anai-arreba asko izaten zen orduan eta eskola ez ezik, etxe haiek, batere eskola txarrak ez zirela aitortu dute hizlariak. Eskolatik kanpo, hala ere, jende asko joaten zen orduan partikularrean, "gogoratzen naiz nola behin Bilbon 12 urterekin, eskolatik kanpo diktatu bat egin eta 40 falta ortografiko egin nituen. Gero partikularrean ikasi nuen benetan nola idatzi".


13 edo 14 urte bitarte ikasi zuten *Lumane*ko kideek. Handik aurrera, lanera. Batzuk fabrikara, besteak etxera edo baserrira. Bakoitza berera... Hori bai, lantegi batzuetan ikasten jarraitzeko modua izan zuten hainbat gaztek. Sacem zabaldu zutenean, 1940 urte aldera, apendizentzat eskola ere ireki zuten. Bertan ikasle izan zirenek, ikasketetan sakontzeko aukera eskaini zieten nabarmendu dute eta asko ikasi zutela.

Orduko eskolaren eta ikasteko modua-

ren inguruan iritzi ezberdinak dituzte hizlariak. Makilaren laguntzaz ikasten zutela diote batzuk. Besteek "onena memoriz ikastea zen. Memoriz ikasitakoa buruan geratzen baita gerora ere. Oraindik gogoan daukagu ordukoa. Orain, berriz...". Denak ez datoz bat, ordea, aipamen horrekin: "Oraingo gazteek buruarekin ikasten dutela iruditzen zait niri. Guk, berriz, burua, memoriz ikasteko erabiltzen genuen".




VILLABONAKO ESKOLA PUBLIKOKO MUTULEN TALDEAK, 1932 URTEA



1.- Juan Bautista Cuevas (maisua)	18.- Pako Exenike	35.- Joakin Arratibel	52.- Daniel Mendizabal	69.- Anjel Ugartemendia	86.- Jose Urreta
2.- Maximino Arana	19.- Jose Mari Oregi	36.- Ignazio Garmendia	53.- Aszensio Urrestarazu	70.- (Ezezaguna)	87.- Migel Alonso
3.- (Ezezaguna)	20.- Agustin Loma	37.- Jose Rodriguez	54.- Jose Garmendia	71.- Arizeta	88.- Juanito Ugarte
4.- Ignazio Ugartemendia	21.- Alejandro Arrillaga	38.- Juanito San Sebastian	55.- Felix Cuevas	72.- Antonio Florenza	89.- Ramon Larrañaga
5.- (Ezezaguna)	22.- Frantzisko Arratibel	39.- Luziano Garate	56.- Juan Antonio Cuevas	73.- Lorenzo Loma	90.- Tomas Arrastoa
6.- Arregi	23.- Juanito Azkune	40.- Jose Mari Ezeiza	57.- Alfonso Mendiluze	74.- Anton Lertxundi	91.- Jose Morabide
7.- Saturnino San Sebastian	24.- Migel Exenike	41.- Ramon Ozaeta	58.- Jose Mari Ozaeta	75.- Joakin Goya	92.- Ignazio Exezarreta
8.- Pakito Borbones	25.- Santiago Inza	42.- (Ezezaguna)	59.- Antonio Inurrita	76.- Esteban Arregi	93.- Anjel Egiño
9.- Antonio Garzia	26.- (Ezezaguna)	43.- Karlos Exenike	60.- Jesus Mari Barbe	77.- Jose Mari Tapia	94.- Martzelino Beñaran
10.- Juan Luis Zubeldia	27.- (Ezezaguna)	44.- Amenabar	61.- Fernando Ustarroz	78.- Alfredo Zapirain	95.- Pako Bernaras
11.- Jose Luis Blener	28.- (Ezezaguna)	45.- Jose Ugarte	62.- Ramon Garmendia	79.- Ramon Garmendia	96.- (Ezezaguna)
12.- Santiago Gonzalez	29.- Periko Ugarte	46.- Ignazio Berasategi	63.- Josexo Ortega	80.- Frantzisko Mendiluze	97.- Mateo Goya
13.- Jose Lino Exeberria	30.- Jose Mari Inurrita	47.- Ciriano Ortega	64.- Migel San Sebastian	81.- Jose Luis Mateos	98.- (Ezezaguna)
14.- Jose Luis Inurrita	31.- Felix Amenabar	48.- Luis Exebeeste (maisua)	65.- (Ezezaguna)	82.- Moises Inza	99.- Migel Inurrita
15.- Jesus Zapirain	32.- Remigio Ayestaran	49.- Jose Mari Azkune	66.- Jose Ugartemendia	83.- Jabier Berasaluze	100.- Bautista Letamendia
16.- Rafael Larrañaga	33.- Jose Mari Arozena	50.- Jose Arratibel	67.- Jose Luis Erostarbe	84.- Bienvenido Loma	101.- Bixente Aya
17.- Antonio Zumeaga	34.- Godo Barbe	51.- Aszensio Balardi	68.- Benito Arratibel	85.- Patrizio Bernaras	102.- (Ezezaguna)




AMASAKO MOJETAKO IKASLEAK



- | | | | |
|-------------------------------|---------------------------|----------------------------|--------------------------------|
| 1.- Begoña Aierdi | 16.- Jose Luis Ugalde | 31.- Juan Jose Urruzola | 46.- Salvador Etxezarreta |
| 2.- Mertxe Perez | 17.- Agustin Yarza | 32.- Enrike Barandiaran | 47.- Jose Ezeiza |
| 3.- Inmaculada Garzia | 18.- Maria Teresa Zugasti | 33.- Maria Isabel Zendoia | 48.- Maria Jesus Amantegi |
| 4.- Maria Teresa Iraola | 19.- Pili Zugasti | 34.- Maria Dolores Zugasti | 49.- Ana Mari Zendoia |
| 5.- Kontxi Aiastui | 20.- Maixabel Arrieta | 35.- Maritxu Tolosa | 50.- Maria Antonia Etxeberria |
| 6.- Blanca Nieves Barandiaran | 21.- Maria Elena Arrieta | 36.- Rosa Maria Ezeiza | 51.- Ixiar Arrieta |
| 7.- Mertxe Sarasola | 22.- Arantxa Iraola | 37.- Gema Barandiaran | 52.- Milagros Atxaga |
| 8.- Maria Esther Barandiaran | 23.- Maria Jesus Pagola | 38.- Belen Aiastui | 53.- Maria Asuncion Etxeberria |
| 9.- Maria Rosario Iturbe | 24.- Sor Maria de la Paz | 39.- Maria Jesus Zugasti | 54.- Arantxa Etxeberria |
| 10.- Maria Dolores Pagola | 25.- Mari Karmen Iturbe | 40.- Maria Lurdes Ezeiza | 55.- Maria Jose Agirre |
| 11.- Santi Lazkano | 26.- Juani Urruzola | 41.- Mari Karmen Amantegi | 56.- Jesus Etxabe |
| 12.- Jose Luis Urruzola | 27.- Batista Begiristain | 42.- Jose Maria Altuna | 57.- Pello Zendoia |
| 13.- Mikel Yarza | 28.- Inazio Mari Aiastui | 43.- Jose Antonio Agirre | 58.- Pedro Elgorriaga |
| 14.- Jose Ramon Begiristain | 29.- Jose Mari Etxabe | 44.- Basilio Sarasola | |
| 15.- Jose B. Etxeberria | 30.- Joakin Aiastui | 45.- Jose Manuel Tolosa | |



AMASAKO ESKOLA PUBLIKOKO IKASLEAK, 1961-62 IKASTURTEA



- | | | |
|------------------------------------|------------------------------------|---------------------------------------|
| 1.- Juan Jose Urruzola (Martíñe) | 13.- Andres Urruzola (Martíñe) | 25.- Pello Zendoia (Urrusti) |
| 2.- Jose Manuel Esnaola (Markelus) | 14.- Migel Mari Esnaola (Markelus) | 26.- Santi Esnaola (Markelus) |
| 3.- Modesto Begiristain (Mustoi) | 15.- Anton Elgorriaga (Larre) | 27.- Jose Mari Iraola (Arzelus) |
| 4.- Inaxio Mari Aiausti | 16.- Jose Mari Esnaola (Markelus) | 28.- Zelestino Arretxe (Sandra) |
| 5.- Santiago Gascón (maisua) | 17.- Juanjo Elgorriaga (Larre) | 29.- Manuel Sorrondegi (Larraña) |
| 6.- Enrike Barandiaran (Ataun) | 18.- Asintxio Elgorriaga (Larre) | 30.- Juan Inazio Etxeberria |
| 7.- Jose Manuel Aranguren (Anguen) | 19.- Joakin Arretxe (Sandra) | 31.- Jose Martin Sorrondegi (Larraña) |
| 8.- Antonio Arretxe (Sandra) | 20.- Tomas Etxeberria (Seroetxe) | 32.- Ignazio Iguaran (Iru-bide) |
| 9.- Basilio Sarasola (Malkorra) | 21.- Jose Ezeiza (Gorriya) | 33.- Mariano Arretxe (Sandra) |
| 10.- Jose Bonifazio Iraola (Xixo) | 22.- Ignazio Zurutuza | 34.- Lorenzo Iraola (Xixo) |
| 11.- Lorentxo Etxabe (Euxita) | 23.- Bittor Amantegi (Mustoi-azpi) | 35.- Xabier Berasaluze Leturia |
| 12.- Manuel Ezeiza (Almortza) | 24.- Pedro Elgorriaga (Larre) | 36.- Jesus Arretxe (Sandra) |
| | | 37.- Jose Migel Zendoia (Urrusti) |

Ikasgelak, pupitreak, maisu-maestrak, ikasgaiak, zigorrak, gertaerak... hamaika pasadizo oraingoan ere. Hizlariak gaztetuta sentitzen omen dira hizketaldi bakoitzaren ondoren. Jarrá dezagun horrela!



Maria Luisa
Zalakain



Pakita
Lasá



Migel
Lertxundi



Maritxu
Mendizabal



Anjel
Egiño



Jabier
Berasaluze



Pedro
Arratibel



Encarna
Yarza

...ETA HURRENGOAN ZER:

Bosgarren zenbakian, Villabonako ezaugarri nagusienetako batez hitz egingo dugu: Erreboteaz. Errebote jokalaria asko eman zuen Villabonak. Herriko pilotari asko eta asko munduan zehar ibili zen pilotalekuz pilotaleku. Garai hartan, familia gehienetan bazen pilotari joandako seme-erren bat. Gerora, pilotariak herrira etortzen hasi zirenean, kanpotik ekarritako aberastasunean nabaritu zen haien etorrera. Hitz egin genuen *Petit Paris* garaiaz, zetazko alkandorez...

Villabonan ere, jarraitzaile ugari biltzen zen errebote partiduak ikustera. Errebote Plazan giro ezin hobea sortzen omen zen, gainera. Askotan, kanpotik Villabonara jokatzera zetozen pilotariei, txistulariek egiten zieten harrera Hiru alde-eta parean eta, kalejiran etortzen ziren plaza-eraino. Hizlariak aipatu zuten, musika bandak ere, herriko pilotariren bat kanpotik etxera itzultzen zenean, tren geltokian egiten zion harrera, pieza ezberdinak eskainiz. *Lumaneren* datorren zenbakian, beste hainbat partaideren artean, pilotari izan zirenen hitzak jasoko ditugu. Tartean izango dira Anjelito Ugarte, profesional mailan ibili zen pilotaria eta Migel Lertxundi, afizionatu mailan aritu zena.

Errebotearen ezaugarri buruz gehiago jakin nahi baduzu, garai hartako pilotarien berri izan nahi baduzu... ez galdu hurrengo *Lumane* aldizkaria irakurtzeko aukera! Ordura arte!



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako
Udala



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurilaritza
KULTURA SAILA